



## 4. DIRU-ITURRIAK


---

Guk aktiboen salmentaren bidez lortuko ditugu irabazi iturriak, drogak detektatzen dituzten edalontziak salduz, hain zuzen ere.

Prezio finko bat ezarriko dugu, baina nahiz eta prezio hori finkoa izan, urtero aldatu egin daiteke KPI-a (Kontsumorako Prezio Indizea) dela eta. Aipatu bezala, drogalauntziak prezio finko bat izango du, 3€-koa alegia. Hala ere, gure diru-sarrerak ez dira finkoak izango, diskotekek, gure kontsumitzaile potentzialek urtean behineko edo 6 hilabeterako erosketak egingo baitituzte, beraz, ohikoena diru-sarrerak irregularrak izatea da. Gure estimazioz, gutxi gorabehera hilabetero 10.000€-ko diru-sarrerak izango ditugu.

Irabazi iturrien arabera, gure bezero potentzialek ordainketa bakarra egingo dute produktua jasotzeko, izan ere, edalontziak behin erositakoan berahientzako izango dira betirako, edo beste bat erosten duten arte. Bezero potentzialak gazteak eta taberna zein diskotekak dira. Diru-sarrerak, hauen artean, horrela banatzen dira:

GAZTEAK	DISKOTEKAK/TABERNAK	BESTELAKOAK
%30	%50	%20





Gainera, kantitate batetik aurrera erostean, tabernek eta diskotekek deskontua izango dute. Deskontua honako hau izango da: 10 edalontzitik aurrera erostean, bakoitzean %20-ko deskontua izango dute. Honek erositako 5 edalontzitik 4 ordaindu beharko dutela esan nahi du, eta beraz, bat oparituko diegula.

Bestetik, gazteek ere deskontua izango dute, baina murriztuagoa. Hauek, 10 edalontzitik aurrera erostean %10-eko deskontua izango dute. Honek esan nahi du erosten dituzten 10 edalontzitik 9 ordaindu beharko dituztela, eta ondorioz, bat oparituko diegula.

